

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA, ETA KIROLA

Kultura

#### **Seme-alabak haur-hezkuntzako udal-eskoletan matrikulatuta dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzen deialdia eta oinarriak. 2016-2017 ikasturtea**

2016ko urriaren 14an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak seme-alabak haur-hezkuntzako udal-eskoletan matrikulatuta dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzen deialdia eta oinarriak. 2016-2017 ikasturtea

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 25ean

*Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailaren zinegotzi-ordezkaria*  
**ESTIBALIZ CANTO LLORENTE**

#### **Seme-alabak haur-hezkuntzako udal-eskoletan matrikulatuta dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzen deialdia eta oinarriak. 2016-2017 ikasturtea**

##### **1. Deialdiaren xedea**

Diru-laguntzak jasotzeko deialdia egitea, 2016-2017 ikasturtean udaleko haur-eskoletan matrikulatutako 2 urteko haurrak (2014. urtean jaiotakoak) dituzten familiei zuzenduta; kontzeptua eskola-asistentzia izango da, eta diru-sarrera ekonomikoen arabera banatuko dira diru-laguntzak.

Deialdi honek, bestalde, 2016-2017 ikasturtera begira, 0-1 urteko haurrei (2015ean eta 2016an jaiotakoak) zuzendutako diru-laguntzak ere arautzen ditu, udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jasotzen duten familietakoak direnean eta Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak proposamen arrazoitua eta nominala egiten duenean.

##### **2. Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak**

Deialdi honek 2016-2017 ikasturtean eskola-garaiko eskola-asistentziagatiko (8:00etatik 13:00etara) prezio publikoan ezarritako ordainketa murriztea du xede; 2 urteko haurrei zuzentzen zaie (2014an jaiotakoak), eta familien diru-sarrerekin lotutako sistema bat erabiliko da: diru-laguntzak emateko sistema progresibo bat ezarriko da, familia-errenta estandarizatuaren hainbat tarte kontuan hartuta.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira udaleko haur-eskolek eskaintzen dituzten gainerako kontzeptuak: 0-1 urteko haurren asistentzia; eskola-garaitik kanpoko asistentzia, 2016-2017 ikasturterako eskola-egutegian adierazitakoaren arabera; bai eta jangelarekin eta siestarekin lotutako kontzeptua ere, 13:00etatik 16:00etara.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak egindako proposamen arrazoitu eta nominalaren arabera, deialdi hau udaleko gizarte-zerbitzuetan arreta jasotzen ari diren familietako 0-1 urteko (2015ean eta 2016an jaiotakoak) haurrei ere zuzentzen zaie; gehienez 9 hurrek jaso ahal izango dute diru-laguntza.

### 3. Aurrekontu-kreditua

72.000,00 euroko aurrekontu-kreditua dago 2016ko ekitaldiko udal-aurrekontuan, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko (Hezkuntza Zerbitzua) 23 19 01 3261 4 8026 kontu-sailean.

### 4. Eskaerak aurkeztea eta aurkeztu beharreko agiriak

2 urteko haurrak (2014. urtean jaiotakoak) udaleko bost haur-eskoletako edozeinetan matrikulatuta dituzten familiek egin ahal izango dute diru-laguntza eskaera, bai eta diru-laguntza eskatzeko zehaztutako epea amaitu aurretik eskolaratzen eta matrikulatzen diren 2 urteko haurrak dituzten familiek ere.

4.1. Aurkezteko epea: 10 egutegi-egun, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

4.2. Aurkezteko tokia: agiriak udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu behar dira (Fray Zacarias Martinez kalea, 3), edo Gasteizko Udaleko Informazio eta Erregistroko bulego nagusietan (San Antonio kalea, 10 eta Teodoro Doublang margolariaren kalea 25-behea); horrez gain, Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

Halaber, herritarrentzako arreta-bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira, honako gizarte-etxe hauetan: Aldabe, Ariznabarra (kiroldegia), Arriaga, El Pilar, Ibaiondo, Hegoalde, Iparralde, Judimendi, Lakua eta Salburua.

#### 4.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

4.3.1. 2 urteko haurra izanik, diru-laguntza eskatu nahi duten familiek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) 1. eranskina, osatuta eta sinatuta.

b) 2014ko Errenta Aitorpena, honako kasu hauetan:

– Udaleko haur-eskoletan matrikulatzeko agirian familiek datuak kontsultatzeko baimenik eman ez dutenean.

– Familien datu fiskalak Arabako Foru Aldundiaren esku ez daudenean.

Gainerako egoeretan, 2 urteko haurrei dagokienez (2014an jaiotakoak), Hezkuntza Zerbitzuak familia-errenta estandarizatuari buruzko dokumentazioa egiaztatuko du ofizioz, 2014ko datu fiskaletan oinarrituta.

Ez dira kontuan hartuko gerora sor daitezkeen egoerak, eta familiaren datu ekonomikoei buruzko erreferentzia bakarra 2014ko errentako datuei dagozkienak izango dira.

Zehaztutako epean aurkezten ez bada eskaera, familiak deialdi honetan araututako diru-laguntzak jasotzeko uko egiten diola ulertuko da, eta prezio publikoak ezarritako kopurua ordaindu beharko du.

### 5. Diru-laguntzen izaera

2 urteko haurren eskaintzen zaizkien tokietarako diru-laguntza ezartzen da, familiek eskola-garaian haurrak eskolara joateagatik (8:00etatik 13:00etara) ordaindu behar duten kopurua murrizteko; familia-errenta zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da murrizketa, eta tokiaren kostu osoa estaliko du familia-errenta oso baxua dutenen kasuan, adibidez, eskolara joateko zailtasunak dituztenen eta, horren ondorioz, seme-alaba txikien hezkuntzarako eskubidea eragozten duten errenten kasuan.

Diru-laguntza ez da aplikatuko eskola-garaietatik kanpo –Gabonak, Aste Santua eta udako oporrak–, ez eta jangela eta siestako zerbitzuan ere; izan ere, azken zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzak urtero ikasketetarako laguntzetarako egiten duen deialdiaren xedearen barnean txertatzen da.

Diru-laguntzak hileroko aplikatuko dira, prezio publikoan zehaztutako ordainagirien gain; hala, familiak ordaindu beharreko kuota prezio publikoaren murrizketari dagokiona izango da.

Halaber, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak proposamen arrazoitua eta nominala egiten duen kasuetan, udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jasotzen duten familiei dagokie-nez, 0-1 urteko haurrek diru-laguntza jasoko dute eskola-garaian, eta haur bakoitzari dagokion tokiaren kostu osoa ordainduko zaie; beraz, ez dute inolako kuotarik ordainduko. Toki kopuru mugatua ezartzen da –9 haur–, programaren egokitasunari buruzko ebaluazioa egiteko aukera izateko eta, hala, hurrengo ikasturteei begira berori finkatzeko.

#### **6. Eskaeretan egon daitezkeen akatsak zuzentzea**

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo oinarri hauetan eskatzen diren agiriak erantsi ez bazaizkie, 10 eguneko epea emango zaie familiei akats horiek zuzen ditzaten edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, ohartaraziko zaie horrela egin ezean diru-laguntzen eskabideari uko egiten diotela ulertuko dela, betiere, Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 21. artikulua xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

#### **7. Informazioa eta aholkularitza**

Hezkuntza Zerbitzuak informazioa eta aholkularitza eskainiko die haurrak udaleko haur-eskoletan matrikulatuta dituzten eta deialdi honetan diru-laguntza eskatzeko aukera izan dezaketen familiei, ikastetxeetako zuzendarien bidez edo Hezkuntza Zerbitzuko bulegoetan (Fray Zacarias Martinez kalea, 3 – 1. solairua; tel.: 945 16 12 18, eta helbide elektronikoa: jarbilla@vitoria-gasteiz.org).

#### **8. Deialdi honen xede diren diru-laguntzen bateragarritasuna**

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria eta osagarria izango da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2 urteko haurrei begira jangela-zerbitzuen prezioa murrizteko ematen duenarekin. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak proposatutako 0-1 urteko haurren kasuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak zerbitzu horretarako egindako deialdirako eskaera aurkeztu ahal izango du familiak, eta udalak jasoko du diru-laguntza hori, zerbitzuen prezio publiko osorako ematen baitu diru-laguntza.

#### **9. Diru-laguntza zehazteko irizpideak**

Honako irizpide hauek zehazten dituzte diru-laguntza eta zenbatekoa:

1. Eskola-ordutegian eta eskola-egutegian eskolara joateko diru-laguntza jasotzeko, 2014an jaiotako haurrak izan behar dira, eta familiaren familia-errenta estandarizatuak 45.000,00 eurokoa edo hori baino txikiagoa izan behar du.

2. Familia-errenta estandarizatuaren tarte hauek eta horiei dagozkien diru-laguntza hauek egituratu dira, Haurreskolak Kontsurtzioak zehaztutako prezioen egituran oinarrituta; hileroko familiek ordaindu behar duten zenbatekoa adierazi da:

a) Familia-errenta estandarizatuak 10.000,00 eurokoa edo txikiagoa dutenak: 51,00 euroko diru-laguntza eta hilabeteko tarifa doan, goizeko ordutegian joateagatik prezio publikoan zehaztutako 51,00 euroekiko.

b) 10.000,00 eurotik 15.000,00 eurora arteko familia-errenta estandarizatua dutenak: 34,00 euroko diru-laguntza, eta familiak ordaindu beharreko hilabeteko tarifa 17,00 eurokoa, goizeko ordutegian joateagatik prezio publikoan zehaztutako 51,00 euroekiko.

c) 15.000,00 eurotik 30.000,00 eurora arteko familia-errenta estandarizatua dutenak: 25,50 euroko diru-laguntza, eta familiak ordaindu beharreko hilabeteko tarifa 25,50 eurokoa, goizeko ordutegian joateagatik prezio publikoan zehaztutako 51,00 euroekiko.

d) 30.000,00 eurotik 45.000,00 eurora arteko familia-errenta estandarizatua dutenak: 17,00 euroko diru-laguntza, eta familiak ordaindu beharreko hilabeteko tarifa 34,00 eurokoa, goizeko ordutegian joateagatik prezio publikoan zehaztutako 51,00 euroekiko.

e) 45.000,00 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua dutenak: 0,00 euroko diru-laguntza, eta familiak ordaindu beharreko hilabeteko tarifa 51,00 eurokoa, goizeko ordutegian joateagatik prezio publikoan zehaztutakoaren arabera.

3. Familiek matrikula egiteko unean ordaindu beharreko kuota, eskolara joaten diren lehenengo hilabetean ordainduko dutena, 80,00 eurokoa da, indarrean dagoen prezio publikoaren arabera; honako laguntza hau aplikatuko zaio kuota horri:

a) Familia-errenta estandarizatua 10.000,00 eurokoa edo txikiagoa dutenak: 80,00 euroko diru-laguntza eta matrikula doan.

b) 10.000,00 eurotik 15.000,00 eurora arteko familia-errenta estandarizatua dutenak: 53,33 euroko diru-laguntza, eta ordaindu beharreko matrikula 26,67 eurokoa.

c) 15.000,00 eurotik 30.000,00 eurora arteko familia-errenta estandarizatua dutenak: 40 euroko diru-laguntza, eta ordaindu beharreko matrikula 40,00 eurokoa.

d) 30.000,00 eurotik 45.000,00 eurora arteko familia-errenta estandarizatua dutenak: 26,67 euroko diru-laguntza, eta ordaindu beharreko matrikula 53,33 eurokoa.

e) 45.000,00 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua dutenak: 0,00 euroko diru-laguntza, eta ordaindu beharreko matrikula 80,00 eurokoa.

4. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak proposatutako 0-1 urteko eskola-aldiko haurrei zuzendutako matrikula eta asistentzia (8:00etatik 13:00etara) doakoak izango dira. Ez ditu barnean hartzen ez diru-laguntza osoa ez kuotaren murrizketa eskola-garaitik kanpoko garaietan (Gabonak, Aste Santua eta udako zerbitzua), ez eta jangela-zerbitzua ere.

Beraz, 80,00 euroko diru-laguntza ezartzen da, hau da, kontzeptu horretarako prezio publikoak zehaztutako kopuru osoa; hala, doakoa izango da kuota, eta 160,00 euroko diru-laguntza ere emango zaie hileroko kuotarako, goizeko ordutegian eskolara joateagatik; prezio publikoak kontzeptu horretarako ezarritako kopuru osoa estaltzen du horrek, eta, beraz, asistentzia-kuota doakoa izango da.

#### **10. Diru-laguntzak emateko prozedura**

Honako deialdi honen xede diren diru-laguntzak lehia bidezko erregimenaren barnean emango dira, horretarako eskatzen diren betekizunen arabera.

Eskariak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskariak izapidetu ondoren, txosten tekniko bat osatuko da, eta ebazpen-proposamena egingo da, oinarri hauetan ezarritako eskakizunen arabera.

Xede horretarako, kide anitzeko organo bat osatuko da, eskariak balioesteko eta diru-laguntzak emateko proposamena egiteko eskumena duena, eta Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko ordezkariak, Hezkuntza Zerbitzuko buruak eta Hezkuntza Zerbitzuko Haur Eskolen Ataleko bi teknikariek osatuko dute organo hori. Ebazpena emateko eskumena duen organoari igorriko dio diru-laguntza emateko proposamena organo horrek.

Deialdi hau ebazteko organo eskuduna Kultura, Hezkuntza eta Kirol saileko zinegotzi ordezkaria izango da.

### 11. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Prozedura gehienez ere hilabeteko epean ebartziko da, eskariak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Berariazko ebazpena eman gabe iragaten bada epe hori, eskariari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta ebazpen horretan adieraziko dira berorren aurka egiteko dauden baliabideak.

Posta bidez jakinaraziko da ebazpena, eta eskaria egin duen familiak jakinarazpenetarako adierazitako helbidera igorriko da, hartu-agiriarekin batera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkideari buruzkoak, 40. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoa betetz, betiere.

### 12. Laguntzen ordainketa

Ebazpenean adierazitako laguntzak familiek ordaindu beharreko kuotan aplikatuko dira zuzenean, eta, beraz, kuota hori murriztu egingo da, kasu bakoitzari dagokion zenbatekoa kendu ondoren.

Jada matrikulatuta dauden eta lehen hilabeteko edo ondorengoetako kuota ordaindu duten ikasleen kasuan, adierazi berri dugun zenbateko hori kendu ez bazaie, izen-zerrenda igorriko zaio Ogasun Sailari, eta diru-laguntza jaso duten familiei itzuli beharreko zenbatekoak zein diren adieraziko da bertan. Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak deialdiari emandako ebazpenaren ondoren itzuliko da zenbatekoa.

### 13. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, diru-laguntzaren emakida ere aldatu ahal izango da.

### 14. Itzultzea

Prezio publikoarekiko murriztutako zenbatekoa edo jasotako kopurua eta berandutze-interesaren eskakizunaren ondoriozkoa itzuli egin beharko dira, prezio publikoarekiko murrizketa egin den unetik edo kopurua jaso den unetik, honako egoera hauetakoren bat gertatu denean:

- Diru-laguntza xede horretarako bete beharreko baldintzak bete gabe lortu bada.
- Diru-laguntzen Udal Ordenantzan aurreikusitako kontrol-jarduerei aurre egin zaienean, ez egiteko aitzakiak jarri direnean, uko egin zaienean edo oztopoak jarri zaizkienean.
- Eskarian jasotzen diren datuak edota aurkeztutako agiriak faltsutu direnean, edo diru-laguntzak emateko oztopo izan zitezkeenak ezkutuan gorde direnean.
- Diru-laguntzen Udal Ordenantzako 20. artikuluan adierazitako inguruabarretakoren bat gertatzen bada.

Itzultzeko prozedura diru-laguntzen Udal Ordenantzan araututakoaren arabera egingo da, eta udalaren Kutxabaneko ES03 2095 0611 03 1090952416 kontuan itzuliko da; ondoren, diru-sarrerari dagokion agiria aurkeztuko da Hezkuntza Zerbitzuan.

### 15. Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenen erregimena Gasteizko Udalaren diru-laguntzen Udal Ordenantzako 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa izango da.

### 16. Aplikagarria den legedia

Honako oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetarako, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Gasteizko Udaleko diru-laguntzen Udal Ordenantza eta aplikagarri diren gainerako administrazio-arauak eta Toki Araubideari dagozkionak aplikatuko dira.

**17. Errekurtsoak**

Honako deialdi honen eta berorri dagozkion oinarri espezifikoen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ALHAOean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean, edota aukerako berraztertze-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da honako deialdi hau onartu duen organoan, ALHAOean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean; eta berorri dagokion berariazko ebazpenaren edo ustezkoaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, errekurtsoaren ezespenebapena jakinarazten den biharamunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean, edo errekurtsoaren ustezko ezespene eman eta biharamunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epean.

**I. Eranskina**

## Laguntza-eskaria

Bi urteko haurrak (2014an jaiotakoak) haur-hezkuntzako udal-eskoletan matrikulatuta dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzetarako deialdia, 2016-2017 ikasturtea.

.....jaunak/andreak,  
 NAN zenbakia.....duenak eta jakinarazpenetarako helbidea.....duenak (telefono-zenbakia.....du, eta helbide elektronikoa, berriz,.....),  
 .....haurraren aita, ama edo tutore den aldetik (haurraren jaioteguna:.....-ko.....-ren.....-a; eta haurra matrikulatuta dagoen Udal Haur Eskola:.....)

## Hauxe eskatzen du

Haurra udal haur-eskolara joaten dela aintzat hartuta, eskola-asistentzia kontzeptugatiko udalaren diru-laguntza eman diezaioten, Gasteizko Udalaren "Bi urteko haurrak (2014an jaiotakoak) Haur Hezkuntzako udal-eskoletan matrikulatuta dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzetarako deialdia, 2016-2017 ikasturtea" deialdian ezarritakoaren arabera.

Gasteizen, 2016ko.....aren.....(e) an

Sinadura:

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saila (Hezkuntza Zerbitzua)

Gasteizko Udala

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Gasteizko Udalak jakinarazten dizu zuk ematen dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen titulartasuneko "Diru-laguntzak" fitxategian jasoko direla, eta diru-laguntzak kudeatzea duela xede. Nahi duzunean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubidea gauza dezakezu, Gasteizko Udaleko Informazio Orokorreko Bulegora zuzenduz, honako helbide honetan: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 – behe, 01008 Vitoria-Gasteiz; eta herritarrei laguntzeko bulego orotara ere jo dezakezu.